

# PRENTSAURREKOA MEMORIA



## CARITAS EUSKADI

### Artatutako pertsonak (familiak) 2020

EUSKADI		ARABA		GIPIZKOA		BIZKAIA	
GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA
11.694	15.914	2.010	3.478	3.791	5.233	5.893	7.203
<b>27.608</b>		<b>5.488</b>		<b>9.024</b>		<b>13.096</b>	

### 2020KO LAGUNTZA EKONOMIKOEN ZENBATEKOA

EUSKADI	ARABA	GIPIZKOA	BIZKAIA
<b>6.858.947,37 €</b>	<b>422.160,37 €</b>	<b>3.211.706 €</b>	<b>3.225.081 €</b>

### 2020ko boluntarioak

EUSKADI		ARABA		GIPIZKOA		BIZKAIA	
GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA
926	2.740	224	615	309	596	393	1529
<b>3.666</b>		<b>839</b>		<b>905</b>		<b>1.922</b>	

### BOLUNTARIO BERRIAK SARTZEA

CARITAS EUSKADIK partekatutako memoria honetan, azpimarratu egin nahi dugu ehunka pertsonak erakutsitako konpromiso eta elkartasun handia, haien inplikazioa eta denbora opari eman baitigute, inguruko pobrezia- eta bazterketa-egoerei erantzuteko. ESKERRIK ASKO.

2020an sartutako boluntario berriak: 330 pertsona izan dira, guztizkoaren % 9,2.

2020ko boluntario berriak				
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Boluntario guztien gaineko %
Araba	36	23	59	% 6,8
Gipuzkoa	88	27	115	% 12,7
Bizkaia	108	48	156	% 8,11
Euskadi	232	98	330	% 9,2

## **PANDEMIAREN TESTUINGURUAN AZALERATZEN DIREN ARAZO NAGUSIAK.**

Pandemiaren ondorio sozial eta ekonomikoek agerian jarri dute gure gizarteko **enplegu informala**, baita **lan-prekarietatea** ere, eta hain zuzen ere egoera horiek gero eta nabarmenagoak dira Caritasen artatutako biztanleen artean, pobrezia-rekin batera, bereziki pobrezia-rik larriena. Baldintza horiek nabarmen areagotzen dituzte **etxebizitza eskuratzeko eta mantentzeko** zailtasunak, eta errealitate hori gero eta gehiago ari da zabaltzen.

Arazo horiek pandemiaren aurretik ere azaleratzen ziren, baina krisialdian ohikoagoak dira, eta gainera, horiekin batera, zaugarritasun eta gizarte-bazterketa modu berriak zabaltzen dira, honako hauek adibidez:

- Batetik, **eten digitala**. Haurrak aukera-berdintasunetik aldentzen ditu ikasketetan, eta helduei oztopoak ekartzen dizkie onlineko prestazioetara eta zerbitzuetara iristeko. Erronka horrek erne jarri behar du administrazio publikoa, herritar guztiek izan dezaten aukera beharrezko gizarte-ondasunak eskuratzeko eta erabiltzeko.
- Bestetik, **harreman-sareak ahultzea**, gizarte-isolamendua eta pandemiak eragindako nekea. Horrek guztiak kalte egiten du **osasun fisikoan, psikologikoan eta emozionalean**, eta orainaren eta etorkizunaren ziurgabetasunak eta segurtasun faltak ondorio psikologiko eta emozionalak eragin dizkie pertsona askori.
- Hori guztia da pandemiak utzi digun ondarerik gogorrena; gainera, egoerarik ahulenean dauden kolektiboen bizitzak eta aukerak ari da ahultzen, bereziki. Gizartearen parte garen aldetik, ezin dugu ondare hori onartu; ondare horrek elkartasuna bultzatu behar du, inor atzean ez uzteko.